

Zumaiako herri aldizkaria

2002ko otsailak 15

BALeike

1,50 €

99. zenb.

Inauteriak 2002



Juan Belmonte, 29 behea
tel.: 943 86 15 45
faksa: 943 86 17 42
email: baleike@topagunea.com

Argitaratzailea
BALEIKE KULTUR ELKARTEA

Administrazio batzordea
Esther Etxeberria
Xabier Azkue

Erredakzioa batzordea
Esther Aizpurua
Eguzki Agirrezabalaga
Antxoka Agirre
Juan Luis Romatet
Josu Waliño
Gorka Zabaleta

Koordinatzailea
Juan Luis Romatet

Kazetariak
Antxoka Agirre
Xabier Aizpurua
Itsaso Ibarra
Maitane Urbietta

Marrazkigilea
Jon Manzisidor

Kolaboratzaileak
Miriam Romatet, Xabier Aranguren,
Jon Maia, Jon Sudupe, Esti Esteibar,
Dani Carballo, Joxe Mari Llavori,
Inaxio Tolosa, Inaxio Manterola,
Belen Golmaio, Izaga Garzia, Haize
Galarraga, Koldo Landaluze, Beñat
Fernandez de Arroyabe, Luis Mari
Aizpurua, Ihintz Linazisoro, Jose
Manuel Gonzalez Aramendi,
Ludoteka, Natur Taldea, Eneko
Dorronsoro, Josu Uranga

Argazkiak
Baleike, Euskaldunon Egunkaria

Diseinua eta maketazioa
Argi Aizpurua

Hizkuntz zuzenketa
Imanol Azkue

Banaketa
Andoni Ormazuri

Publizitatea
943 86 15 45 tel. (Esther)

Inprimategia
Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)

Tirada
1.000 ale

Lege gordailua
SS-405/94


ISSN
1136-8594

Baleikek ez du bere gain har-
tzen aldizkarian adierazitako esa-
nen eta iritzien erantzukizunik.



5 Ze berri?:
azokaren inaugurazioa. aparkalekua doan?

6 Inauteriak 2002
argazkitan



9 Elkarrizketa
Pako Aristi

20 kirolak
badator krosa

23 Personaje ilustriak zumaian
Jose Azarola




Zumaia, Zumaya... ZUMAYA?
Alda dezatela, mesedez,
arren, otoi...

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



Zumaiaiko Udala



Txakur kakak atean

J.M. Elexpuruk duela urte batzuk idatzi zuen liburu baten izenburuak zakur zaunkak aipatzen zituen. Zine-forum taldeak behin ekarri zigun pelikula batean berriz – Wonderland, oso ona – etxeakoandre batek, auzokoaren zakurraren zaunkekin erotzeko zorian, okel puska bat pozoindu, eta etsaia (zakurra, ez auzokidea) akabatzen du.

Nik oraindik ez dut horrelako planik, gainera udako euli pelma-pelma horiek hiltzeko ere gai ez banaiz (hamaika saiakera ondoren bat harrapatuz gero leihotik kanpora botatzen ditut), indarrak ahotik botatzera mugatuko gara berriz ere. Zakurren zaunkek ez naute haserretzen gainera; egi-egia esateko, edozeinen zakurrak baino zarata handiago eta ugariago ateratzen duten bi "xomorro" baditut etxean (ez dadila inor "gusanitos" pozoituak prestatzen hasi, mesedez).

Halere, bada alde bat: nire alaben kaka eta txizek ez dute herriko kalerik zikintzen, eta tamalez, hori ezin esan dezakegu herriko txakurrei buruz.

Nazka-nazka eginda nago alde zaharreko kaleetan txakur-kakak edonon ikusteaz; agian hala izango da beste kaleetan ere, ez dakit, baina gurean ezin dira hamar pauso eman kaka-mokordo izugarriarik topatu gabe: zikina, kiratsa, autoak gainetik pasaz gero ehun metro kakaztuta, eta espaloian berriz "gran slalom". Udan eguzkiak galtzarriak epeltzen dituenean, xehetasunik nahi?

Asko hitz egin daiteke gai honen inguruan, kontuak kontu, uste dut txakur baten jabe denak badakiela hura etxean edukitzeak dakarren ardura; hain maite duen lagun hori, larrialdi garaia iristean kaleko atean bere kasa uztea aurreko espaloian bere lanak egin ditzan, bost minutura etxeratzen uzteko, zer da?

Nik egunero ditut zakur-kakak atean, eta harritu egiten nau, batik bat egunotan alde zaharra guztiok ahotan darabilgunean, inork gai hori ez aipatzeak. Ohituta gaude? Ni ez. Gure kaleko trafiko eta aparkaleku-ezaren arazoak ez dira konponerrazak, baina orain aipatzen dizuedanak bai, ez? Ea bada.



Miriam Romatet



dekorazioa
ALBERDI



696 726188
943 143261

- Eskaiola
- Pladur-a

Alberdi
Gizonezkoen moda



Erribera kalea, 6
Tel. 861155



ERRIBERA KALEA 2 - IZUMAJA 943 867543

Ongietorria Azoka berrituari



Otsailaren 2an egin zen Azoka eraberri-tuaren zabaltze ekitaldia. Azken uneko konponketak egin, falta ziren toldoak jarri, aparkaleku batzuk kendu, eta dena prest zegoen Azoka berrituari ongie-torria emateko.

Zabaltze ekitaldia hilaren 2an izan bazen ere, ordurako Azoka martxan zegoen. Ia hilabete lehenago arrandun eta baserri-tarrek bere postuak hartu zituzten, eta urtarrilaren 31n Eroskik Charter delako supermerkatua zabaldu zuen. Barruan, Alde Zaharreko bizilagun ugari haserretu dituen karteltxoak: Eroski berriak eskaintzen dituen zerbitzuen artean doako aparkalekuak. Euskaltzaleak ere

ez daude oso gustura, zerbitzuak hitza "s" batekin idatzita (zerbitsu) agertzen baita kartel horretan.

Kontuak kontu, eguraldi eguzkitsu bat izan zuen lagun zabaltze ekitaldiak. San Pedro Txiki abesbatzako haurrak pintxo eta edariak banatzen, haurrentzako tailerrak Udaletxe alboan eta, noski, ezin falta trikitixen doinuak/soinuak. Ez zen diskurtsorik edo ekitaldi berezirik izan. Dani eta Nerea, proiektuaren egileak azken detaileak zaintzen eta jendea azoka oso polita geratu dela esaten.

Hori bai, ia denak ados galdera bat egiterako orduan: non aparkatu behar dira autoak?

Era guztietako instalazioak etxelizitza, pabilioi eta herriko arzetan



GAZTE, S.L.

ELEKTRIZITATEA

Trenbide pasealekua, 5 1. pabilioia

tel: 943 14 34 02

fax: 943 86 25 36

Tailerra: estazioko kalea, 23

tel mugikorra: 608 14 34 09



Ignacio Zuloaga enparantza Tel. 943 861157

EGOKI



*Erloju
eta bitxidenda*

E. Gurrutxaga plazan

Arantza Aramendi

EGUZKI
G. INMOBILIARIA

Harategi kalea, 15 behea
943 86 22 65 - 609 46 56 37



i n a u t e r i a k







Pantalan berria Itsas Kiroldegirako

Badira hamabi urte Itsas Kiroldegiko moilan pantalana jarri zela. Ordutik denbora dezente pasa da eta pantalana hondatuta, zaharkituta eta txikia geratu da. Egunero 100 lagunek baino gehiagok erabiltzen dute eta, aipatu digutenez, istripu txiki batzuk izan dira azken urteetan pantalanaren egoera kaxkarra dela-eta. Aita Mari Arraun Elkartearen eskaerari jaramon egin ondoren, Zumaia Udalak pantalan berria enkargatu dio Amilibia ontziola oriotarrari. Bitartean, moilan hasi dira pantalan berria jartzeko lanak.

Luis Mari Goikoetxeak, Aita Mari Arraun Elkarteko lehendakariak, adierazi digunez, eman behar duen zerbitzurako oso txikia geratu da pantalana. Izan ere, arraunlari eta piraguiten artean 100-150 lagunek erabiltzen dute. Goikok esandakoaren arabera, arraunlariak makina bat arazo

izan ohi dituzte traineruarekin maniobrak egiteko. Pantalana nahiko txikia (12 metro) izateaz gain, 3 metroko zabalera duen arrapala nahiko estua omen da arraunlariarentzat. Trainerua igotzeko orduan kontu handiarekin ibili behar izaten dute, norbait uretara erortzeko arriskua izaten baita.

Pantalan berria 20 metro luze izango da eta 3,5 metroko zabalera duten bi arrapala izango ditu. Horiek, gainera, baranda txiki batzuk izango dituzte, kirolarien segurtasuna bermatzeko.

Esan bezala, Orioko Amilibia ontzian ari dira egiten pantalan berria. Aurrekontua, moilan egin beharreko lanak eta guzti, 10 milioi ingurukoa da. Itsas Kiroldegiko moilan lanak egin beharko dira, pantalan berrira egokitzeko, aurrez esan bezala, bi arrapala izango baititu eta moilan zenbait beheragune



egin beharko baitira. Lanak jada hasiak dira eta laster amaituko dira.

Pantalan berria ikusteko, ordea, oraindik zain egon beharko dugu, aldezturik ibaiaren dragatu behar baita. Hirigintza sailean esan digutenez, Balenciaga ontziolen alboko moilan dragatze lanak egin behar dituzte eta tarte batean ibaiaren beste erribera dragatzeko eskatuko diete. Dragatze lanen baimena Portuen Sailak eman behar duenez, baimena noiz helduko zain egotea besterik ez da falta. Dragatze lanen ondoren, pantalan berria jartzea bizpahiru eguneko kontua izango da.

Kirolarien eskaerak

Pantalan berriaren beharra azaltzeaz gain, Luis Mari Goikoetxeak hainbat kexa adierazi ditu, arrantzaleek pantalana erabiltzen dutelako. Goikok esan digunez, angula eta izkirak hartzen ibiltzen diren arrantzale askok karga-deskargarako erabiltzen dute pantalana, eta zikinduta uzten omen dute. Nahikoa izaten da euri pixka bat egitea zorua labaina uzteko. Egoera horretan, kirolariak makina bat istripu izan omen dute.

Goikok argi utzi nahi du pantalana kirol taldeek erabiltzeko dela, eta ez arrantzaleen jardueretarako. Pantalan berria jartzen den unean, zaharra Arbustain Motor Elkartek hartuko duela adierazi digu Goikok. Bakoitzak pantalan bat izanda arazoak amaituko direla espero du.

ilargi

Alai auzategia, 2
Tel. 943 14 33 24

ekin **ISTALAZIO ELEKTRIKOAK**
elektrozitatea, s.l.
Ezkerreko katea 18 Behe Tlf/fax: 943 143097
20.759 Zumaiak ekin@ekinl.com
Instalazioak/banatuak ofizialak

CANAL+ VÍDEO
CANAL DIGITAL

Telebista
Premier Office

Justina
Movistar
Movistar
Movistar

LEIZE
taberna

Juan Belmonte, 6



Eneko Dorronsoro

Pako Aristi idazle urrestildarra ekarri dugu oraingo honetan Baleikeko orrialdeetara. Izan ere, eta egunkari eta gainontzeko hedabideetan berak idatziriko liburu edo eskuartean darabilkien ikuskizunen bat dela eta azaldu ohi bada ere, gurera ez dator halako ezergatik. Egunotan, idazketa tailer moduko batean parte hartzen ari da lagun talde bat Forondan. Aurtengoa hirugarren aldiz egiten da honelako tailerra Zumaian. Aurretik, Yolanda Arrieta eta Ana Urkiza idazleek emaniko beste bi ikastaldi izan ziren; oraingo honetan, berriz, Pakori egokitu zaio irakasle lanak egitea. Gai hau aitzakiatzat hartuta, bada, tailerraz zein beste hainbat kontuz mintzatu gara Pakorekin.

Hitz egiguzu Zumaian ematen ari zaren ikastaroaz. Zer aurkitu duzu?

Lehenik eta behin, jende asko. Izan ere, hogeita bi lagunek eman dute izena ikastaro honetarako, nahiz eta gero hamahiru inguru agertu larunbatero, eta idazteko gogoia duen jende

kopuru handia da hori Zumaia bezalako herri baterako. Pentsa, aurretik Eibarren emana naiz honelako ikastaro bat, joan den udazkenean, eta han zortzi lagunek eman zuten izena, eta klaseetara bost agertu ohi ziren. Alde horretatik, asko

harritu nau. Tartean bada Zarautz, Getaria eta Azpeitia-Azkoitia inguruko jendea, baina gehienak Zumaia-koak dira. Idazle ezagunei erreparatuz gero, herri askotan ez da batere, agian ondokoan bat, eta urrunagoko beste hartan beste bat, baina oso urriak dira.

B. Etxegarai 2, behea
943 86 27 14

YIN YANG

GAZTEEN ERROPA

ZALLA
Taberna - Erretegia

** plater konbinatuak*
** otartekoak*
** oilasko erreak*

San Pedro, 4 Tel. 943 862387

Zerbitzu Ofiziala

ZUMAIA MOTOR

Santixo auzoa, 22
Tel./Faxa: 943 143143

Horregatik diot ez dela oso ohikoa hainbeste lagun biltzea herri bateko literatur tailerrean. Idazleoi, gainera, liburu bat egiteko garaian askotan bururatzen zaigu zeinentzat egiten ari garen, jende gutxi dagoela literaturaz interesaturik, edo halamoduzko susmo bat behintzat badugu, eta hortik hainbesteko laguntalde bat topatzera... Harritu egin nau. Agian, baliteke herrian aurrez era honetako beste bi ikastaro eman izanak halako tradizio moduko bat sortu izana, ez dakit. Gainera, ikastaro honetan badira hainbat lehiaketatan saritutako idazleak, libururen bat argitaratu duenik ere bada, eta maila aldetik ere, beraz, badagoela esan genezake.

Eta egokia al da hainbesteko jende kopurua honelako ikastaro baterako?

Noski, gauza hauek sei-zazpi lagunekin intentsoagoak dira. Agian gauza batzuetan ez da nabaritzen, baina eginiko idazlanak irakurtzerakoan, adibidez, bai gerta litekeela astun samarra hamabi lagun lanak irakurtzea; gainera, pare bat foliokoa baldin bada bakoitza... Alde horretatik bai, egokiagoa ikusten dut sei bat laguneko taldea.

Ikastaroari dagokionez, zein asmo dituzu? Zertara zuzendu nahi duzu?

Literaturak duen alderdi teknikoa, sintaxia, eta hizkuntza menperatzea eskatzen duena, agian alderdirik lehorrena, pisutsuena, aspergarriena, nik uste bakoitzak landu dezakeela etxean, bere kasa. Publikazio asko dago, eta hori gutxi ari naiz ukitzen, eta gehiago literaturaren alderdi ludikoa litzatekeena. Idazketa moduak, idazteko iturriak, gaiak, eta batez ere ondo pasatzeko intentzioarekin. Hamar klasetatik bizpahirutan



landuko ditugu sintaxia, arauak, baina gehiegi sakondu gabe.

“hainbesteko laguntalde bat topatzera... harritu egin nau”

Zer espero dezake ikastaroetara datorrenak?

Hona etortzerako, ikasleak maila onarekin datoz, lehen aipatu bezala badira zerbait argitaratu dutenak ere, idazteko inongo problemarik ez dutenak, eta agian literaturaren beste ikuspegitxo batekin edo irten litezke. Nire helburua kariño pixkat sortzea da, bai literaturarekiko, bai liburuekiko, eta gero pixka bat konparazioa egitea. Gai bat aukeratu, adibidez, eta gai horren inguruan Txinako idazle batek idatzi duena irakurri, polako batek idatzitakoa, eta euskaldun batek. Konparatu, eta nolabait euskal idazleak munduko

literaturaren baitan zein mailatan dabilzan ideia bat hartu. Gero beste kontu bat izango da ikasle bakoitzak duen gogoia, eta gustuak, batzuek jasoko dituzte nire adibide horiek, eta agian besteren bati ez zaio gustatuko, haien gustuko literatura klasea beste bat izango delako, beste idazle batzuk atseginago izango dituztelako; baina, beno, ni saiatuko naiz ahalik eta ikuspegi zabalena eskaintzen.

Ikastaroa alde batera utziaz, eta zure ibilbide pertsonala ezagutzeko, kontakiguzue zure hasierak. Nondik norakoa duzu literaturzaletasuna?

Irakurtzeko zaletasuna txiki-txikitandikoa dut, zortzi-hamar urterekin hasiko nintzen, hasieran egunkaria irakurritik, eta liburuak jarraian, baina ez nuen irakurzaletasuna bultzatzeko kanpainen beharrik izan. Gauza bitala da hori, barrutik sortzen dena ala ez. Nire kasuan, behintzat, hala izan da,



INMOBILIARIA

Amara

Julio Beobide, 3 behea 943 86 23 01

STIAO
taberna

ORTEGA Y GASSET, 3 943 860151



eta baita beste askorenean ere, nik uste. Eta idazten ere berehala hasi nintzen. Umetan ez zara konturatzen gauzez, baina gerora agian ohartzen zara beste alor batzuetan, kirolean--eta, oso abila ez izan, eta beharbada horren konpentsazio gisa edo hasten zara idazten, eta beste mundu bat deskubritzen. Txikia nintzela idazteko makina bat oparitu ziguten anaia guztioi, eta hura izan liteke idazten hasi nintzeneko data, makina hura oparitu zigutenekoa.

Noiz argitaratu zenuen lehen liburua?

Hogei urterekin idatzi nuen lehen liburua, Kcappo izeneko nobela. Bilbon kazetaritzako lehen ikasturtea eginda, uda Urrestilan igaro nuen. Eta halako herri txiki batean autorik gabe, dirurik gabe, uda osoa, gogorra da ez badaukazu inongo errekurtsorik. Eta nire errekurtsua idazten hastea izan zen. Oporretan hasi eta udazkenean amaitu nuen nobela.

Garai hartan markatu zintuen libururik?

Asko, liburu eta idazle asko. Gabriel Garcia Marquez, Pio Baroja, Hermann

Hesse, Truman Capote, Miguel Delibes..., idazle pila bat. Eta liburuak orduan Hermann Hesserrenak, gehienbat. Hasiera hartan *El lobo estepario*, Garcia Marquez-en *Cien años de soledad*, Delibes-en *El camino* eta Jack Kerouak-en *En el camino* ere bai, asko esango nituzke. Poesia ere bai, Ernesto Cardenal-en poesia protesta konprometitua...

“Txikia nintzela idazteko makina bat oparitu ziguten anaia guztioi, eta hura izan liteke idazten hasi nintzeneko data”

Esaiakiguzu zure ustez idazle batek bete beharreko bost bat kalitate.

Bat esango nuke sentimentala izatea. Bestea obserbatzen jakitea, ikusten eta begiratzen, biak, eta pixka bat, pertsonen baitan sartzen, pertsonen baitan dauden arazoak ikusten jakitea. Hurrengoa, hori idatziz agertzen jakitea. Eta baita zer idatzi behar ez den ere. Kontatu behar duena

ondoena zerk islatuko duen, hura soilik kontatu eta beste guztia kentzea. Eta bosgarrena ez dakit, ba, agian pazientzia, pazientzia eta morala.

Beharrezkoa izango da irakurtzea ere, ezta?

Bai, dudarik gabe. Irakurtzea entrenamendua da, batzuetan kontzientea, eta besteetan inkontzientea. Eta ipuin sarike-tetan epaile izaten nahizenetan, antzematen da ipuin baten atzean zer eragin dagoen. Bada, Borges en estiloa du, edo nobela beltza idazten duten amerikarrak, telebista asko ikusten duen norbaiten ipuina da...,

berehala nabaritzen da.

Beti kopuruari ematen zaio garrantzia eta, zenbat liburu idatzi dituzu?

Hogeita bi edo. Baina kontuan izan horietatik erdia inguru haur literaturakoak direla. Haurrentzakoak liburu laburrak izan ohi dira, irudi askorekin, hamar-hamabost bat foliokoak. Beste bizpahiru, berriz, zenbait egunkaritan idatzitako artikuluen bildumak.

Orduan, nik esango nuke hogeita bi liburu argitaratu ditudala, baina horietatik onak, edo merezi dutenak, bat eta erdi. Jendeari galdetuz agian hiru edo lau liburu diferente agertuko dira, eta horien artean bat egongo da balio duena, bat eta erdi. Beraz, balio duen beste liburu bat lortzeko, beste hogeita bi idatzi behar. Uste dut Andu Lertxundik zioela, eta ados nago, liburu txar bat beharrezkoa dela. Izango dira kritika txarrak jasoko dituzten liburuak, eta konforme, ez da gustatu. Baina seigarren liburua ona baldin badator, aurreko bost kaxkarrak beharrezkoak izan dira zure ibilbidean, seigarren horretara iristeko. Eta gu

GIZARTEKINTZA zentru soziala

KAFETEGIA - JATETXEA

- Eguneko menua
- Plater Konbinatuak
- Kaxuelitak
- Kuadrillentzako afariak

• denontzat irekia



Gipuzkoako Foru Aldundia
Gizarte Zerbitzuetarako departamentua

Eusebio Gurrutxaga plaza, z/g Tel. 943 86 17 00



Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

Zuloaga plaza, 1
Tel. 943862309



ilusio horrekin bizi gara, liburu txar bat egiten dugunean, beste on horretara iristeko bidea egiten ari garen ilusioarekin.

Ba al duzu zure liburuen artean gainontzekoak baino gogokoago duzun bat?

Bereziki ez. Baina pixka bat neure baitako sentitzen dudana liburua Urregilearen orduak izenekoa da. Orain dela lau urte atera nuen nobela handia da, eta hor urte askotako lanak, pentsamenduak eta gogoetak sartu ditut. Nobela hau izan da idazten denbora gehien pasa dudana liburua, eta pixka bat orain arteko nire bizitza laburbiltzen duena, testamentu baten moduan. Eta hori daukat beste guztien gainetik kariño berezi batekin.

Zein estilo edo genero jorratu dituzu?

Denetik, gazte eta haur literatura, poesia pixka bat, narratiba... gehienbat narratiba, baina gero eta gehiago ari naiz poesia idazten. Ni

berandu hasi nintzen poesia idazten. Jendea normalean poesiarekin hasten da, eta gero egiten du narratibarako pausoa, eta nik alderantziz. Gauza asko aldrebes egin ditut bizitzan, eta hori ere bai. Poesia, perfektiora-edo daraman halako bide mistiko bat bezala ikusten dut, eta beno, hasi naiz poesia egiten, eta orduan denetik jorratu dudala esan nezake. Baina bereizketa garbirik egin gabe genero batean eta bestean. Nik ideia bat izan, eta pentsatzen jarduten dut ea ideia hori nola agertuko litzatekeen hobekien, ipuin baten forman edo poema baten forman. Edo balio ote du honek haurrentzako liburu bat idazteko? Eta sarritan zalantzak izaten ditut erabakitzeke. Hau haurrentzat izango da, edo helduentzako ipuin baten zatia izango da, edo nobela bateko pertsonaien arteko elkarriketa bat izango da ideia hau...

“Nik nahi nuke idazkera freskoa izatea, zorrotza eta aldi berean samurra. Hiru ezaugarri horiek baleuzka, perfekto”

Nola definituko zenuke zure idazkera?

Ez dakit, nik nahi nuke idazkera freskoa izatea, zorrotza eta aldi berean samurra. Hiru ezaugarri horiek baleuzka, perfekto. Hala nahiko nuke, baina ez dakit seguru nolakoa den. Pentsa, behin lehengusu batek nire *Kcappo* nobelari buruzko lantxo bat egin behar zutela eskolan eta neuk egiteko eskatu zidan. Hala egin nion, eta nota oso txarra jarri zioten, justu-justu aprobatu zuen. Horrek esaten dit leize ikaragarria dagoela zuk ustez

elkarriketa

idatzi duzunaren eta jendeak jasotzen duenaren artean, eta, orduan, oso zaila da jakitea nik neuk nolakoa den nire idazkera.

Gogorra omen da idazle bizitza.

Gogorra baino gehiago, intsegrua dela esango nuke nik. Ofizio honetan aurrez ezin duzu jakin zenbat diru iritsiko zaizun, eta, beraz, gauzak planifikatzea eragozten dizu. Intsegritate horrekin bizitzen ikasi beharrean aurkitzen zara. Gero, liburuak idazteaz aparte, badaude beste zenbait lan, gidoilaritza dela, edo erreportaiak egitea... Nik kazetari naizen aldetik, hortan izan dut beti oinarria. Urte askotan egin ditut erreportaiak, eta nire apoio nagusia hori izan da, kazetaritza, eta kazetari-tzako kolaborazioak. Diru kontuez aparte, une gogorak baditu, adibidez inspiraziorik gabe zauden uneak. Edo gogorra izaten da, baita ere, liburu bat argitaratu eta jendeak kasurik egiten ez dionean, zuk liburu horretan sartutako denborak eta lanak jendearen aldetik neurri bereko erantzunik ez jasotzean. Une gogorak izaten dira, baina gero liburu bati kaso egiten zaionean horrek estali egiten ditu.

Inspirazioa aipatu duzu. Nola inspiratzen zara?

Hor bide bakarra patxaran egotea da. Ezer egin gabe, inora joan beharrik gabe. Hiru egunetan agian parrafo bakarra idatziko duzu, eta gero egun batean hamar folio. Ez dago jakiterik. Eta, orduan, aguantatzen ikasi behar da. Ezer sortzen ez denean, etorririk ez dagoenean, disgustu hori aguantatzen, eta horri buelta ematen ikasi behar da.



LIBRERÍA
AIZPURUA

Aita-Mari auzategia, 17
Tel. 943 861569

Antonio Etxabe



Gizonezkoen
erropak

Zumbillo, 4 Tel. 943 861407



Itzurun, 1 Tel. 943 143224

zer iruditzen zaizu zumaiko aparkalekua zer aldatu edo egin daiteke

inkesta



Manuel Martinez
Desastrea, milan ala
nola, bestela
desastrea. Soluzioa?
zona urdin gutxiago
jarri eta etxe bakoit-
tzeko garajea.



Joakin Aristi
De pena.
Amaia plaza, Balen-
tziageneko hori eta
Arrangoleta topea
aprobetxatu beharko
litzake.



Jose Mª Hidalgo
Nahiko gaizki dago,
zona batzuetan
saturatuta. Ez du
soluzio handirik
ikusten.



Mohamed El-Drissi
Ondo dago, nahiko
ondo dago... ondoegi.



Xabier Albarez
Kotxea daukat eta ez
dut problemarik
aparkatzeko. Soluzio
kaxkarra dago aparka-
lekuakin, kotxia
gutxiyo ibiltzera ohitu
behar degu.



Uxua Sorazu
Eskasa, ez dakit nun
jarri beharko diren,
baina gutxi daude.
Soluzioa... subterra-
neoak egitea, baina
hemen urarekin zaila
ez?



Nerea Uranga
Bueno... ondo dabe,
beti behar dira gehio
gehien bat
poligonuan; goiko
kalea ez dakit nola
dagoen, baina ez da
ondo egongo.

Arkupe



Okindegia
eta gosariak

Kale nagusia, 2 Tel. 943 861521



**AUTOS
ZUMAIA**

Urola plaza 3-5
Tel: 943 86 14 85

Karmengo Ama, 14
E-20749 Arroa (Gipuzkoa)
Tel/Fax: +34 943 14 83 06
e-mail: bakun@euskalnet.net



Bakun
ITZULPEN ETA ARGITALPEN
ZERBITZUAK S.L.

Herri euskara

Inaxio Tolosa. Aktorea

Historia



Inoiz kontatu ez den historia

"Abertzaleak Zumaian: ibilbide luze baten arrastoan". Izenburu horrekin azaldu zaigu, XX. mendearen historia ilunak argitzeko asmotan, liburu interesgarri eta irakurterraz hau.

Zaila da historia hurbilari buruz jardutea, eta liburuak asko argitzen digu mende hasieratik, gerra ondoren arte izan ziren gertaerak (esan daiteke izen abizenez azaltzen zaigula). Ez da hain zehatza, eta ulertzekoa da, ETA eta bere mugimendu osoa Zumaian izan zuen eragina aztertzeko garaian. Nahiz eta azalpenak egon badauden.

Askok dira liburu honetan ageri diren idatzi, agiri, zerrenda, aldizkari eta egunkarietako aipamenak, zumaierrek bizi izan zituzten une gogorak ere bertan daude eta, noski, niri zutabe honetan horietako asko azaltzeko tentazioa piztu zait, baina horietatik guztietatik, gaur, behintzat, bakarra kontatuko dizuet (etorriko dira gehiago).

Hona hemen 1931ko apirilaren 15ean udal berria behin-behingo osatzeko egunean, aho batez onartu zen erabakia:

"Los que suscriben, Juan Arratibel Larrañaga y Victoriano Arrate Loyola, en representacion respectivamente del Partido Republicano Vasco y del Partido Nacionalista Vasco de esta localidad, de esa Iltre. Corporacion SOLICITAN que acuerde la proclamacion de la Republica Vasca...".

Ikerketa lan duin eta hunkigarri honi esker, gure historiaren atal ugariei heldu zaie etxeko zokoetataik irteteko garaia.

Ze berri? zarra berri...

Urte berrian sartu gara, baina lan zaharrak eta kontu zaharrak astintzen jarraitu nahi dugunez, lehenengo gaiari helduko diogu aurten ere, aurrera azkar goazela ikusita, atzean geratu dena ez dugulako zeharo ahaztu nahi. Badago zer egin eta zer jaso. Gure inguruko herriei begiratura ere, sumatzen da badagoela lehenengo kontuak eta ohiturak jasotzeko zaletasuna eta horretan saiatzen ari direla.

Leku batzuetan, herriko kantak jasotzen ari dira. Nonbait konturatu dira kalean, etxean edo tabernetan kantatzeko joera galtzearekin batera, kantak ere galtzen ari direla. Getarian, esate baterako, kaleko eta elizako kantak liburuxka batean argitaratu eta ikastaroa antolatu dute kantu horiek ikasteko. Gure inguruko beste herri batean berriz, sehaska kantak ikasteko ikastaro labur bat antolatu dute guraso gazteentzat, gero hauek beren etxeetan haurrei kantatzeko, etxean ikasitakoari eta gurasoengandik ikasitakoari garrantzia emanaz.

Pentsa daiteke, modan dagoela ikastaroak antolatzea edozer gauza ikasteko, baina dakitenek esaten dute berez ikasi ez dena saiatuta ikas daitekeela.

Dena dela, tartetxo honetan herriko euskarari buruz hitz egiten jarraituko dugu. Hizkerari emango diogu lehen-tasuna, eta jasoko ditugun ohiturak eta kontuak zumaierren baten hitzetan ematen saiatuko gara. Gehiago modernizatzen garenean, beharbada, ahotsa zuzenean entzuteko aukera izango dugu, eta urrats bat gehiago egiteko gai izanez gero, ona izango litzateke hitz egiten duenaren irudia ikusteko aukera izatea ere.

Momentu hori iritsi bitartean, erdi ahaztuta dauzkagun hitzak gogora ekartzen ariko gara, hari eta honi galdetuko diogu ea nola eta noiz esaten zen hori Zumaian.

Gaurko berriketaldia bukatu aurretik, agur bat bidali nahi diogu egun hauetan 96 urte bete dituen San Telmo kaleko zumaier ezagun bati: "urte on askotarako amona Paka". Hemendikantxe entzuten diogu ai konpañño!!



Ortega y Gasset, 2
Tel: 943 86 22 06



Alai Auzategia, 14 behea
Tel: 943 14 31 12



Patxita Etxezarreta, 25 Tel: 943 862073



Izaga Garcia. Dietista

Medikuntza naturala


Umeak eta terapeutika naturala (I)

Umeen garapenenean, gaixotasunak, batez ere "klasi-koenak", beharrezkoak izaten dira, gaixotasun horiek garatu eta sendatzeko umeei bere denbora eman behar zaie, eta ez sendagai bortitz eta askotan kaltegarriak (antibiotikoak, kalentura uxatzeko sendagaiak...). Gaixotasuna azkarrago sendatzeko erabiltzen badira ere, luzera umea ahuldu eta agente kaltegarrien aurka defentsa gutxiago izango ditu. Txertoak jartzean, umeari agente kaltegarria sartzen zaio gorputzean, bere kabuz defentsak sor ditzan. Terapeutika naturalarekin, berriz, umeak bere kabuz sistema immunologikoa indartzen saiatuko gara.

Horretarako, lehenik eta behin, elikadura egoki eta osasuntsua ezinbestekoa da; umeek beraien garapenerako eta etapa bakoitzean beharrezkoak dituen elikagaiak kopuru eta proportzio egokietan hartu behar ditu. Jaioberrientzat dagoen elikagairik natural eta proportzionatuena bular esnea da, eta psikologia aldetik ere eragin handia izango du. Pixkanaka, eta gutxi gorabehera 4. hilabetetik aurrera, beste elikagaiak hartzen hasiko da umea: fruta eta barazkiak, gerorago patatak eta beste zerealak... Txikitatik jaten dugunak eragin handia izango du heldutasunean izango ditugun gaixotasunetan. Askotan, gurasoek, ezjakintasunagatik eta seme-alabengatik egokiena egiten ari direlakoan, oker larriak egiten dituzte; adibidez, gure gizartean, umeei animalien proteina gehiegi janarazten diegu, beharrezkoa ez denean; behi esnea ere zenbat eta gehiago egokiagoa delakoan, umeari agian kaltegarri izango zaio: 4 urtetik aurrera, gizaki gehienak esnearen "laktosa" asimilatzeke beharrezkoa den "laktasa" entzima galtzen dugu, eta esneak intolerantzia, alergia, diarrea, e.a. sor ditzake. Hobe izaten da, orduan, beste esnekiak edo "esne begetalak" (soia, almendra, urra, oloa...) aukeratzea.

Eskola-umearen dietak bariatua eta ahal den heinean dibertigarria izan behar du. Umeari berdurak gustatzen ez bazaizkio, jolas dezagun beraien kolore, forma eta testurekin, proba ditzagun elikagaiak beste era batera prestatuta. Bestalde, aipagarria da merien-daren gaia: enbutido eta goxoki gehiegi ematen dizkiegu umeei. Alternatiba asko daude: fruta, etxean eginiko tartak, gazta ogi integralarekin, fruitu lehorrak, jogurta zerealekin...

Hala ere, gurasoek zer egiten duten, horrek izango du eragin handiena umeengan, ezin izango dugu umea berdurak jatera behartu guk jaten ez baditugu, fruta jaten ez badugu, umeak ez du ohiturarik izango... Pentsa dezagun zer puntutaraino den garrantzitsua umearen elikadura eta erakutsiko dizkiogun ohiturak bere garapen eta heldutasunean; agian horrela familia guztiak elikadura egokiagoa aukeratu du.



Josu Waliño. Informatikaria

Olarrua amaraunean

Nabigazio alternatiboa

Itsasoan bezala Interneten ere, guk aukeratzen dugu zein ontzitan nahi dugun nabigatu: belaontzia, txalupa, edo patera izango den gure nabigazio-sistema. Interneten nabigatzeko ere baditugu hainbat aukera: guztietan lehenena Netscape Navigator (<http://home.netscape.com/computing/download/>) izan zen, gaur Communicator bihurtua. Nabigatzaile hau erosi beharra zegoen hasieran, baina Microsoft etxea Internet Explorer (www.microsoft.com/windows/ie) nabigatzailea doan banatzen hasi zenean merkatua guztiz jan zion, eta Netscape doan banatu bakarrik ez, bere kodea Interneten zabaltu zuten jendeak hobetu zezan. Horrela jaio zen Mozilla (www.mozilla.org), Interneten hainbat laguntzailek sortutako nabigazio motorra. Motor hori da izen bereko Mozilla nabigatzaileak erabiltzen duena, eta baita Netscape berak gaur egun erabiltzen duena ere. Horiez gain, ordea, badira beste hainbat nabigatzaile. Ezagunenetako bat Opera (www.opera.com) da, baina ez bakarrik: Vantage (www.vantagebrowser.com) Estatu Espainiarrean garatutako nabigatzailea da, eta oso aukera interesgarriak eskaintzen ditu. Badira beste hainbat ere, eta Interneten erraz aurkituko dituzue.

Dena den, itsasontzia aukeratzeko garaian bezala, nabigatzailea aukeratzeko ere, hainbat gauza izan behar dituzue kontuan: onartzen dituen lengoaiak (Java, Javascript, etab.), plug-inak gehitzeko aukera, etab.

EGUZKI / PUB
Koktel bereziak
Basadi Auzategia, 9-A 2-B

expert
ELEKTROGAILUAK
MERTXE AIZPURUA
Etxezarreta, 6 Tel. 943 861078

KAFETEGIA
GAROA
JATETXEA
TXOMIN AGIRRE KAIA
TEL. 943 86 21 81

Krosaren barrunbeak

Martxoaren 3an korrituko da Zumaiaiko XVIII. Kros Herrikoia. Goiz osoan zehar arituko dira lasterka haur eta heldu, neska eta mutil. Lasterketa labur edo luzea, batzuk irabazteko asmoarekin aterako dira; besteak, gehientsuenak, kirola egiteko gogoarekin. Krosak goiz bat irauten badu ere, antolaketa aspaldi hasita dago.

hartuko dituzten epaileekin harremanetan jarri ondoren, antolatzaileen artean lanak banatzen dira. Batzuek krosaren ibilbidea erabaki eta neurtuko dute. Beste talde bat finantziario pribatuaren bila abiatuko da. Zumaiaiko Udala da proba honetan dirua jartzen duen erakunde publiko bakarra, eta zuloak estaltzeko herriko

Antolatzaileak bi motatakoak dira: batetik, antolaketa prozesu guztian lanean ari direnak; bestetik, azken egunetan aritzen direnak. Azken horien lanak sekulako garrantzia du. Bidegurutzeak zaindu, bizikletetan korrikalarien alboan joan, azken uneko izenak hartu, etab. Herriko kirol taldeetako jendea aritzen da laguntzen.



Hain zuzen, horri buruz, Zumaiaiko Kros Herrikoia antolatetari buruz, Fran Aizpuruarekin jardun dugu.

Proba honen antolaketarako lehen bilerak abenduaren erdialdera izaten dira. Lehenik eta behin Gipuzkoako Federazioarekin biltzen dira urte horretako proba atletikoen egutegia aztertzeko, jakin beharra baitago ea egun horretan beste proba bat korritzen den Gipuzkoan.

Dokumentazio guztia lortu ondoren (Trafiko saila, Federazioa, Foru Aldundia) eta denborak eta postuak

denda eta enpresen laguntza behar izaten da.

Hirugarren talde bat izena ematearekin hasten da lanean. Gipuzkoako zenbait eskualdetako kirol dendetan izena emateko orriak banatzen dira. Horren helburua azken eguneko izena ematea ekiditea izaten da; hala ere, urtea joan eta urtea etorri, azken orduan jende askok ematen du izena. Franek adierazi digunez, 250-300 lagun inguruk ematen dute izena azken egunean, horrek sortzen dituen arazoekin.

Krosa igandean korritzen bada, larunbatean hasten dira prestaketak kilometro bakoitza markatzen. Igandean goizeko 6:30etan batu eta helmuga bideko hesiak jarri eta helmuga bera prestatzen hasten dira. Goizeko 9:00etan, bidegurutze bakoitzean gutxienez lagun bat jartzen da eta 9:30etan lehen lasterketak hasten dira.

Eguerdiko 12:00ak direnean, ia korrikalari guztiak helmuga puntutik pasatu dira. Orduan hasten da okerreana. Denbora oso gutxian sailkapen guztiak prestatu behar dira, sari banaketa ekitaldia denbora gutxira hasiko baita. Presak ez dira lagun onak eta askotan arazo dezente izan ohi da. Antolatzaileen estresak ere ugaritu ohi dira.

Txapelak, garaikurrak, dominak eta opariak banatu ondoren, sailkapen orokorrak prestatu ohi dira, jakina baita astean zehar makina bat telefono dei izango direla bakoitzak egindako postua eta egindako denbora jakiteko.

Martxoaren erdialdera, XVIII. krosa jada historia izango da. Denbora pixka batera Zakila Bila prestatzen hasteko garaia izango da, eta ia ohartu gabe krosaren antolaketa berriro gainean izango da.

gofi
haur jantziak

Amaiako plaza z/g

Tel. 943 860959

English School
Harvest

Ingelesko klaseak adin guztietan

San Jose, 11 bis

Tel. 943 143334

ILEAPAINDEGIA

IRUITZ

San Telmo, 12
Tel. 943 860760

100 zenbaki, mila kontu, mila istorio

Udaberrian Baleikek zortzi urte beteko ditu. Aldizkaria koxkortu egin zaigu eta lotsagabeen moduan paga eskatzen hasi da. Ez dakigu haurtxoa nola jantzi: bularra dominez josita duen almirante moduan edo printzesa ilehori liluragarri baten antzera. Noski, gure haurtxoak ere komunioa egingo du. Ez gara gu besteak baino gutxiago izango. Don Joserren haserrea nork jasango luke bestela.

Hilabete batzuk lehenago beste ospakizun bat izango dugu aldizkariari lotuta. Baleikeraren 100. zenbakia plaza-ratuko da martxoaren 1ean. 100 zenbaki, mila kontu. Makina bat pertsonaia, istorio, elkarrizketa. Herri honen taupadak jasotzeko asmoa. Egia mingarri asko. Gezur biribilak ere izan dira tartean. Akatsak? Kontaezinak. Ondo egindakoak? Beste hainbat, edo gehiago. Jarraitzeko asmoa? Odol berria dagoen unean, bai horixe!

Ez dira herri honek dituen 600 eta ez dakit zenbat urte, baina herri honetan 100 zenbaki ateratzea ospatzeko modukoa da. ≠

Ospakizunak otsailaren amaiera aldean hasiko dira. Aste oso batean Oxford guretzat hartu dugu. 100 zenbaki hauetan argitaratu ditugun argazkirik onenak, aldizkari zaharrak, argitalpen bereziak, etab. bilduko dituen erakusketa izango da. Horiez



gain, tarte "interaktiboa" ere izango da. Ordenagailu bat martxan izango da, zuek zuen artikulua idazteko. Gafosua, Maria Eugenia, IU eta Juan Andresekin argazkiak ateratzeko aukera ere izango duzue. Mezuak idazteko txokoa ere izango da. Erakusketa otsailaren 23tik martxoaren 2ra egongo da zabalik.

Ruper Ordorika

Martxoaren 1ean, 100. zenbakia kaleratuko den egunean, ekitaldi nagusia izango da Aita Mari zineman. Gaueko 10:30etatik aurrera kontzertu ederra entzuteko aukera izango da. Karidadeko Benta talde zumaiarrak

emango dio hasiera kontzertuari. Jarraian, eta lehen aldiz Zumaian, Ruper Ordorikaren emanaldia izango da. "Hurrengo goizean" diskoko kantuak abestuko dizkigu. Sarrerak leihatila bertan izango dira salgai 6 euro xumeren truke.

Larunbatean, erakusketaren amaierarekin batera, party edo festa izango da Oxford aretoan. DJ baten eskutik musika, bideo emanaldiak Oxfordeko hormetan, lasai-lasai berriketan egoteko sofa komodoak, edariak... partya hitz batean. Gaueko 11etan hasi eta gorputzak irauten duen arte egongo gara bertan.

Gonbidatuta zaudete.



- * Eguneroko bazkaria
- * Pintxo eta bokatak
- * Koadrilentzako menu bereziak
- * Kazuelitik eta plater konbinatuak

Erribera kalea, 16
Tel. 943 862517



- Depilaketa (beroa, epela)
- Minik egiten ez duen depilaketa elektrikoa
- Aurpegia edertzeko sendabideak
- Gorputza edertzeko sendabideak
- Lurrindegia
- Solarium-a

Baltasar Etxabe, 5
Tel. 943 14 31 35



- * kamisetak
 - * txiskeroak
 - * paperezko poltsak, e.a.
- baltasar etxabe 7 tel: 86 05 69

ITSASKI
SUPERMERKATUA

Urumea kalea z/g
Tel. 943 143058



Urumea, 6 Tel. 943 862083



Erribera kalea, 20

Mendi Astea, munduko tontorrak igotzeko aukera

Urtero bezala, mendizaleak azken urteotako espedizio eta igoeren lekuko bihurtuko dira, irudien bitartez bada ere. VIII. Mendi Astea antolatu du Inda Mendi elkarteak, eta, ohi bezala, hainbat diapositiba emanaldi izango dira Foronda Kultur Etxeko hitzaldi aretoan. Europa eta Amerika erakutsiko dira, Iparra eta Hegoa. Dena irudi harrigarri eta ederren bitartez.

Guztira bost diapositiba emanaldi eskainiko dira martxoaren 4tik aurrera. Lehen egunean, Patxi Ibarbiaren "Transeuropa 2001: Cabo Norte-Tarifa" diapositiba bilduma izango da. Eski, piragua eta bizikletan egindako bidaia luzearen berri emango digu.

Asteartean, martxoak 5, "Zailtasuneko alpinismoa: muturreko alpinismoa" bildumaren txanda izango da. Mikel Saez de Urabain da egilea, eta ia etxetik irten gabe egin daitezkeen igoerez jardungo du.

Asteazkenean, martxoaren 6an, Igor Mendizabalen "Meru-Siuling 2001" bildumak hartuko du lekukoa. Espainiako Mendi Federazioak martxan jarritako alpinista gazteen taldearen azken bi urtetako ibilbidearen laburpena da honakoa. Alpinisten mendi kuttunenetakoa den Meru Peak tontorrera igotzeko ibilbide berria irekitzen saiatu zen espedizio hau.

Hilaren 7an, Aritza Monasteriok "Noches de juerga" diapositiba bilduma eskainiko du. Peruko Huay Hash mendikatean dagoen Siula Grande mendira egindako igoeraren irudiak eskainiko dizkigu. Mendi hau

bere mendebaldeko aurpegi izugarritik igotzea euskal mendizaletasunaren iazko ekintza onentzat hartu zuten.

Aurtengo Mendi Astea amaitzeko, ostiralean Felipe Uriarte beteranoak "Hiru handiak espedizioa" izeneko irudi bilduma ekarriko du. Espedizioak

oso helburu handiak zituen: 35 egunetan Amerikako hiru tontor garaienak igotzea: Ojos del Salado (6.864 metro), Pissis (6.882 metro) eta Aconcagua (6.954 metro).

Emanaldiak arratsaldeko 7:30etan izango dira, Foronda Kultur Etxean.



Hilaren bian kandelario...

Aurten ere ohitura zaharrari eutsi zaio eta Zumaia talde bat ibili da inguruko baserrietan eta herriko taberna batzuetan kantari, Manu Garate beteranoa gidari zutela. Aipatzekoa da, ordea, egunarekin egin zuten aldaketa; izan ere, aurten Santa Ageda bezpera astelehena tokatzen zenez, bezperaren bezperan irtetea erabaki zuen taldeak, hau da, igandean, San Blas egunean. Jon Maia aritu zen koplari eta soinu eta panderoarekin, berriz, Billabierko bikote gaztea. Goizez Askizu, San Prudentzio eta Getaria aldeko baserri batzuetan ibili ziren eta, noski, paraje horietako txakolina dastatzeko aukera ez zuten alferrik galdu. Arratsaldean, Jadarreko aldapan gorako bidea hartu eta inguru horretako baserrietan aritu ziren, eta baita Pikoten olagarroak jaso ere. Bukatzeko, iluntze aldera Erribera kaleko taberna batzuetan egin zituzten azken saioak. Datorren urtean Kandelario egunean ibiliko ote dira?

- Arrainak eta haragiak aukeran
- Eguneko menua
- Jangela klimatizatua

Juaristi
JATETXEA

Basadi auzategia, 10

Tel. 943 861853



Personaje ilustriek

Jose
AZAROLA

GURE
LEHENENGO
ROCKEROA

Azarola'tar Jose 1900
inguruan jaio zen Zumaiari.
Madrilgo Kontserbatorioan
ikasi ondoren Ameriketara
egin zuen salto.

Han bere orkestra
propioa sortu zuen,
manboa, cha-cha-cha
eta ezpatadantza
uztartuz.

Badirudi Xabier Cugat-ek
estiloa kopiatu ziola, eta
ez hori bakarrik; badirudi
neskalaguna ere kendu
ziola kabroi horrek.

Argazkian erraz soma
daiteke bien arteko nor-
gehiagoka. Baina adi!:
Azarolak emakumeari
titietara begiratzen dion
bitartean ikusi nola Xa-
bier Cugat-ek ipurdira
begiratzen dion.

Efektu hau luze
ausnartu ondoren
ipurdiaren garran-
tziaz ohartu zen
eta horrela
pianoa ere
ipurdiarekin
jotzea deli-
beratu zuen.

*Eta arrakasta itzela
lortu zuen 1930ean.*

20 urte beranduago
Jerry Lee Lewis-ek
esango zuen bezala
"greit balls of faia".

Azarolaren bertsioan:
"Greit* ba altzion afaia"

* Greit: Azarolaren emaztea, berezko
izena Engracia, ameriketan Greit.

Abertzaleak Zumaian: ibilbide luze baten arrastoan


Ismael Manterola Ispizua

1998an argitaratu zen Zumaiaiko historia liburuak hutsuneak zituela, hutsune handietako bat XX. mendea- rekin nagusitu ziren ideologia berrien ikerketa zela esan nuen bere garaian aldizkari honetan.

Abertzaletasuna eta ezkerreko ideologiaren etorrerak XIX. mendeko inertzia politikoarekin puskatu zuen eta gaur egun bizi dugun egoera konplexuaren arrazoiak ulertzeko ezinbestekoak dira.

Horregatik, liburu honen balioa handia iruditzen zait. Historia handia eta txikia elkartzen dituelako eta nagusi bilakatu zen ideologia baten urratsak aztertu dituelako, nahiz eta erraza ez izan, batez ere diktadurapean egondako 40 urteetan debekatuta egon zelako.

Ikuspuntu objektiboa izateko egilearen ahalegina eskertzekoa da. Ez da Zumaiaiko EAJren historia, nahiz eta alderdi honen protagonismoa nabarmena eta ukaezina izan XX. mendean. Hala ere, hori baino gehiago



iruditzen zait, Zumaiaiko historiaren alde asko ezagutzeko aukera eskaintzen digu: kultura, emakumeen bizitzaren aldaketak, zeharka bada ere, beste ideologiaren presentzia (liberalismoa, karlismoa, errepublikarrak, etab.), langileen mugimenduak (ELA, UGT), etab.

Lau zatitan banatutako liburuan abertzaletasunaren ibilbidea aztertzen da eta XX. mende hasieran lau katuk hasitako lana mendearen bukaeran pentsaera nagusi nola bihurtu zen ikusiko dugu. Kokapen orokorreko sarrera egin ondoren, Sabino Aranaren alderdiaren etorrera ikertzen da bigarren kapituluan. Hirugarrenean, berriz, errepublika garaiko gertaera zurrunbilotsu bezain erakargarriak ezagutzeko aukera izango dugu.

Hurrengo kapituluan, berriz, egoera nahasiaren emaitza dramatiko eta ikaragarria (ikara sortzeko modukoa esan nahi dut) kontatzen da Zumaiaiko Erkibe Taldearen memoria berreskuratzeko ariketa baliotsuaren laguntzarekin.

Azkenean, diktadurapean bizitako une gogorak aztertzeko saiakera badago ere, uste dut zati hau dela ahulena. Hala ere, normala da, isiltasuna ikertzea ez delako erraza eta perspektiba historikoa falta zaigu oraindik.

Liburua bukatu ondoren ateratzen den konklusioa da 100 urtetan abertzaletasuna zumaiaarren ideologia nagusi bilakatu dela eta gainera ia beti zuzendu duen alderdi nagusiari, EAJri, fidela izan dela. Herri kontserbadore izaten hasi genuen zumaiaarrok XX. mendea eta kontserbadore izaten bukatu dugu.

Beraz, liburu gomendagarria Zumaiaiko historia ezagutu nahi duenarentzat, zorrotasun historikoz idatzita eta irakurterraza edozeinentzat. Maila zientifikoa eta dibulgazioaren arteko oreka mantentzen asmatu duen liburua. Horrenbeste sufritu zuen jendearen oroitzapen historikoa berreskuratzea ezinbestekoa eta legezkoa zela iruditzen zait. Orain ariketa zailagoa falta zaigu, gutxiengo izan zen ezkerreko joeren ikerketa abiatzea; ea udalak liburu honi eman dion bultzada ematen dion.

Galdona



Mendator marinela, 1 Tel. 943 861117
943 143346
Juan Belmonte, 15 Faxa. 943 861330



GANBARA



Juan Belmonte, 5 Tel. 943 86 10 57



Zoruen kutxilaketa eta barnizaketa
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 Tel. 943 861412

ALTZARIAK OSTOLAZA AROTEGIA



Mota guztietako
altzariak eta
aroztegi lanak

Julio Beobide, 1
TEL: 943 861325



Rakel estetika

kiromasajea
tatuajeak

Aita Mari 42, behea TEL: 943 862093



otsailak 22, ostirala
Tabakoak sor ditzakeen

Zuz: Jone Irazabal
Akt: Ramon Barea

Ivan Ivanovich-ek, antzezlan honetako pertsonaia bakarrak, ihes egin nahi du. Bere emazteak, nesken barnetegi bateko jabeak, erabat dominatzen du.

Barnetegiko musika eta beste hainbat gaitako irakaslea da, bertako administratzailea izateaz gain. Eta ihes egin nahi du: "Solfeotik, sukaldaritza aurreztailetik, ezer ez duen zopatik, bere emaztearen dirutik, ergelkeria horietatik guztietatik ihes egin nahi dut...", eta urruneko lekuren batean geratu nahi dut, mendian, zuhaitz bat banintz bezala landatuta. Eta ahaztu". Ahaztu, eta agian hil. Ivan Ivanovichen tragedia ikuslearentzat komedia da. Edo hala izan beharko luke.

Txalo Produkzioak antzerki taldeak Anton Txekhov idazle errusiarraren "Tabakoak sor ditzakeen kalteak" lana antzeztuko du. Oholatza gainean, Ramon Barea bilbotarra. Bere ahotik, dibagazio artean, milaka egia.

Martxoak 8, ostirala
Komeriaka emakumezkoena

Zuz: Eneko Olasagasti
Akt: Ioli Astoreka, Elena Irureta, Aitzpea Goenaga, Mireia Gabilondo, Maiken beitia



Guztira bost aktore. Bost emakume, Bakoitza berari ardura dion zerbaitekin abiatuko da. Ez da aitzakia, baizik eta ia aitorpena, sekretu bat kontatuko baligute bezala. Egia

batetik abiatuta, psikodramarik gabe, fikzio umoretsua egingo da eta hortik aurrera komeriak.

Loli Astorekak Euskal herritarra dela eta ez baserritarra oso garbi utzi nahi du. Elena Irureta etxetik ateratzearen beldur da. Mireia Gabilondok hausnarketa egiten du: zientzuek dira bere ustez gizon batek eduki behar dituen nolakotasunak hobezin izateko? Maiken Beitiak nafarra da eta euskaldunberritasuna barne-barne-barneratua dauka. Aitzpea Goenaga, hark bai arazoak, bere kontua zertan den ez baitaki oraindik.

ZINE FORUM



otsailak 28, osteguna
El cielo abierto

Zuz: Miguel Albaladejo
Akt: Sergi Lopez, Mariola Fuentes

El cielo abierto Miguel Albaladejo eta Elvira Lindoren elkarlanaren laugarren fruitua da. Lau pelikula hauetan jende arruntaren bizitzetan oinarritu dira. Hiri handietako auzo txiroetan bizi den jendea, langileak, etab. dira pelikula txiki, xarmagarri eta barre eragile hauetako ardatzak. Benetako bizitzan aurki daitezkeen pertsonaiekin eta Woody Allen berak sinatuko lituzkeen elkarriketekin egiten dute topo tandem honek sinatzen dituen pelikuletan.

Pelikularen zutabea Sergi Lopez da. Aktore kataluniar honek psikiatra baten papera betetzen du. Emazteak uzteaz gain, amaginarreba jasoko du etxean. Horrez gain, lanean ari dela, auzo txiro bateko gazte batek diru zorroa lapurtuko dio. Kartera berreskuratzera joaten denean, bere bizitza aldatuko dion ile apaintzailea ezagutuko du.



Martxoak 7, osteguna
El círculo

Zuz: Jafar Panahi
Akt: Maryam Parvin Almani, Nargess Marnizadeh

Jafar Panahik irandarrak, bere azken lan honetan etengabe mehatxatuta bizi diren emakume batzuen istorioa kontatzen digu. Ohituren tranpan erori nahi ez duen gaztea, prostituzioan murgildu den neskatoa edo bere alaba abandonatu behar izan duen emakumea dira, besteak beste, *El círculo*ko protagonistak.

Emakumeen begietan, kolpe ugari jasotako aurpegietan, begirada goibeletan eta beldurra eta mina darien aurpegietan geratzen da. Zirkulu horretatik irtetea ezinezkoa da, baina, hala ere, emakumeak ez dira errenditzen eta borrokatzen jarraitzen dute. Emakume izatea, Iranen bizitzea eta aske izatea, lasai bizitzea zaila ez, ezinezkoa dela frogatzen duen pelikula sinesgarri eta gogorra.

amaiako plaza, 2
Tel. 943 143278

Maite
ileapaindegia

Rosi
garbiketak


- * Etxeak eta dendak
- * Enpresa eta auzo lanak
- * Erropa garbiketa eta tintaketa

Basadi,3-A
Tel. 943 861670

SIWA
Belardenda

Basadi 5C
943 143404

- Elikadura, belarrak, buztinak, tratamenduak.
- Kontsulta naturista
- Osteopatia, masajea
- Dietak
- Estetizista
- Solariuma
- Tai-chi, masaje eta Reiki ikastaroak



otsaila agenda

21

osteguna

IPUIN
KONTAKETA
Hiruki taldearen
"Hauxe da
zientzia"
17:30etan
Forondan

22

ostirala

ANTZERKIA
Txalo taldearen
"sobre los
perjuicios del
tabaco"
22:00etan
Aita Mari zinean

24

igandea

HAURRENTZAT
ZINEA
"Spot"
17:00etan
Aita Mari zinean

27

asteazkena

DEIALDIA
Santelmoak
2002 antolaketa
bilera. Herriko
talde eta
interesik duzen
guzitioi gonpi-
dopen zabala
19:00etan
Udaletxean

ARGIZAIOLAK

Otsailaren 21 arte, Oxford aretoan.

Haritzez, gereziondoz eta gaztainondoaz landutako 50 pieza dauzkagu hemen, Felix Pinillos Martinez jatorri nafarreko artisau legazpiarrak eginda. Donostiako San Telmo museoan dauden oholtxoen kopia zehatzak dira, egia esan. Forma eta eredu ezberdin asko daude, eta euskal hilobi-artea eta arte herrikoia irudia osatzen dute, orokorrean. Artearen Historian lizentziatua den Luis Angel Agirre Mujikak ezarritako irizpideari jarraituz sailkatuko dira argizaiolak, eta jatorria eta ezaugarri nagusiak azaltzen dituzten testuekin batera aurkeztuko dira.

MARTXOA

10

igandea

HAURRENTZAT
ZINEA
"kiriku eta
sorginak"
17:00etan
Aita Mari zinean

MARTXOA

8

ostirala

ANTZERKIA
"Komeriaka"
22:00etan
Aita Mari zinean

MARTXOA

16

larunbata

IRTEERA
Baionara Euskal
Museoa ikustera

SOLOZABAL AUTOESKOLA

- Klase teorikoak zein praktikoak norberak nahi dituenean
- Klase teoriko ikusentzunezkoen abantailak erabilia
- Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko eta nazioarteko agentzietarako ziurtagiriak lortzeko ikastaroak

P. Etchezarreta, 19 bis Tel./Faxa: 943 861416



ΔΙΣΜΑΝ-KOS S.L.

SANEAMENDU ETA ERAIKUNTZA MATERIALAK

Iraeta auzoa z/g 78 postakutxa
Tel. Faxe: 943148124
20740 IRAETA- ZESTOA

TXALAPARTA
OPARIAK

Angeles Sorazu, 2
Tel. 943 143089



TXINGURRI
Koap. Elk.

Nekazaritza Injineru Teknikoak

ESTAZIO Kalea, 25 20.750 ZUMAIA
GIPUZKOA Kalea, 33 C 3º 20.800 ZARAUZ
(GIPUZKOA)
Tel. (943) 86 07 78 - (943) 14 09 40

Jardinen diseinu
... mantenimendua
Nekazaritza zerbitzuak
Kirol zelaien mantenimendua
Txostenak ...
ahalgarritza teknikoak,
Balorazioak



Tel. 943 860000

ERROTA
OPIL-OKINDEGIA

100.

BALEIKE zenb

OTSAILAREN 23TIK MARTXOAREN 2RA

Oxford aretoan. **erakusketa**. 100 zenbakiko ibilbidea argazkiak, aldizkari zaharrak, argitalpen bereziak txoko interaktiboa

MARTXOAK 1. OSTIRALA. 22:30ETAN. AITA MARIN

Ruper Ordorika eta
Karidadeko Bentaren kontzertua

**MARTXOAK 2. LARUNBATA.
23:00ETATIK AURRERA. OXFORD ARETOAN**

Party^a!

musika... bideoemaldiak... sofak



apunta ezazu zure agendan!